



www.iglesiaporeltrabajodecente.org
comunicacion@iglesiaporeltrabajodecente.org
@iglesiaxtd

PRENTSA OHARRA • MAIATZAK 1
Madril, 2019ko apirilaren 23a.

«ELIZA LAN DUINAREN ALDE» TALDEAREN IZENEAN, PREKARIETATEAREN AURKA BORROKATZEKO INDARRAK BATZERA DEITU DUTE

Prekarietateak eragin nabaria dauka pertsona askorengan: pobrezia kronikoko egoeran bizi diren gazteengan; oinarrizko beharrianak estali ezin dituzten familiengan; eta pentsio iraingarriak jasotzen dituzten pertsona nagusiengan

Maiatzaren 1aren harira, **Eliza Lan Duinaren alde (ITD)** mugimendua sustatzen dugun erakundeok -*Caritas, Conferencia Española de Religiosos (CONFER), Hermandad Obrera de Acción Católica (HOAC), Justicia y Paz, Juventud Estudiante Católica (JEC) eta Juventud Obrera Cristiana (JOC)*— indarrak batu ditugu bigarren urtez, “lanaren izpiritu sortzailea” ospatzeko eta “langileen eta horien senideen eskubideak urratzen dituen eta egungo lan-harremanen sistemaren ezaugarri nagusia den prekarietatea” behingoz desagerrarazteko.

Pertsonen lehentasuna emanez, prekarietate iraingarriari ez izeneko manifestua landu dugu langile guztien eta San Jose langilearen eguna den honetarako. Horren bidez, gogorazi nahi dugu “lan duina Garapen Iraunkorrerako Helburuen artean dagoela; eta, horretaz gain, gizateria osoaren kohesioa eta justizia soziala lortzeko funtsezko elementua dela”.

Gazte, familia eta pertsona nagusiengan daukan eragina

Elizaren barneko erakundeek argi salatu nahi dituzte prekarietateak honako pertsonengan dituen ondorio larriak: pobrezia kronikoko egoeran dauden gazteengan, ezin baitute bizi-proiekturik garatu; familiengan, oinarrizko beharrianak estaltzeko arazoak izaten ari baitira, hala nola etxebizitza, argia, arropa, jatekoa edota medikamentuak; eta pertsona nagusiengan, pentsio iraingarrien ondorioz kalitaterik gabeko zahartzaroa izaten ari baitira. Gainera, argi esan nahi dugu lana funtsezkoa dela pertsonen bizimodurako, gure komunitatea eraikitzen laguntzen baitu; eta politikari, agintari eta botere ekonomikoek eskatu nahi diegu gure oinarrizko eskubideak bermatzeko, denon ongizatearen aldeko gizarte bat lantzeko beharrezkoak baitira. Horretarako, Lanaren Nazioarteko Erakundeak bere ehungarren urteurrenaren harira nabarmendutako puntu bati garrantzia eman nahi diogu: pertsonengan zentratutako programa bat sortu behar da, norbanakoen gaitasunetan, lan erakundeetan eta lan duin eta iraunkorrean inbertituz. Cesarren, Zaragozako gazte baten testigantza jaso du manifestuak: “enpresek eskaintzen dizkidaten ia lan guztiak prekarioak dira; ordu solteak, aldi baterako ordezkapenak... horrela ezin da bizimodu duinik izan. Lan mota horiek estres handia sortzen didate; etorkizunera begirako ziurgabetasun horrek beldurra ematen dit. Horregatik, maiatzaren 1ean kalera irtengo naiz, beste kide batzuekin batera, lan duina izateko eskubidearen alde”.

Prekarietate iraingarria

Prekarietate egoera iraingarri hau honako indizeetan islatzen da:

- **Langabezia.** 3.304.300 pertsona langabezian eta lan egiteko aukerarik gabe (EPA 2018).
- **Enplegu kalitatea.** Iragankortasun-tasa % 26,86koa da (EPA 2018). Denbora partzialeko lana, borondatezkoa ez dena, % 58koa da; % 58,2 gizonezkoen kasuan; eta % 68,5 emakumeen kasuan (EPA 2018).
- **Lan-pobrezia.** 12.338.187 pertsona, biztanleriaren % 26,6, pobrezia edota gizarte-bazterkeria arriskuan daude. Lana duten pertsonen % 14,1 langile pobreak dira. (ARPE txostena, EAPN, 2018)
- **Ordu estrak.** Astean 7 milioi ordu estra egiten dira; horietatik 3 milioi ez dira kobratzen. 364.400 langilek ordu gehiago egiten dute lan, kobratu gabe; eta beste 415.400 langilek kobratuz egiten dute. (CCOO, EPA 2018)
- **Babes-sareak.** Lanik gabe dauden eta prestazioak dituzten pertsonen estaldura-sarea % 61ekoa da. 1,39 Milioi pertsonak ez dute lanik, ezta prestazio sozialik ere (SPEE, 02/04/2019).



www.iglesiaporeltrabajodecente.org
comunicacion@iglesiaporeltrabajodecente.org
@iglesiaxtd

2.835.000 pentsiodunek (% 29,6) pobrezia-mailatik behera dagoen pentsioa jasotzen dute (609€ hilean). 1,5 milioi pentsiodunek (% 15) 609 € eta 650 € bitarteko pentsio dute hilean. (AROE txostena, EAPN, 2018)

■ **Soldata.** Emakumeen urteko batez besteko soldata 20.131,41ekoa izan zen; aldiz, gizonena 25.924,43 eurokoa, 2016an. Soldatarik ohikoena 16.497,40 euro ingurukoa izan zen (INE 2018).

■ **Laneko segurtasun eta osasuna.** 2018an, baja sortu zuten 47.435 lan-istripu izan ziren. Lanaldian baja izan zuten istripuen artean, 297 istripu larri izan ziren, eta 37 kasutan langilearen heriotza eragin zuten. Baja izandako in itinere lan-istripuen kopuru osoa 6.135ekoa izan zen; horietatik, % 44 (2.729) gizonetzkoak izan ziren; % 56, aldiz, emakumezkoak (3.406). Larritasunari dagokionez, *in itinere* gertatutako 73 istripu larriak izan ziren, eta beste 7 kasutan heriotza gertatu zen. (MITRAMISS, 2019 aurrerapena)

■ **Langileen parte-hartzea.** Soldatapeko langileen % 51,3k ez daukate ordezkari sindikalik enpresan (Lan Baldintzen inguruko Inkesta. 6. EWCS, 2015. Laneko Segurtasun eta Higienerako Institutu Nazionala).

■ **Atsedena.** Lana duten pertsonen % 22,4k astean 40 orduetik gora lan egiten dute. % 33k igandeetan lan egiten dute, hilean behin edo gehiagotan. % 24,6k daukaten ordutegia ez dator bat beren konpromiso familiar eta pertsonalekin (Ibidem).

Pertsonak erdigunean jartzea

Eskubideen eta duintasunaren aurkako baldintza hauei buelta emateko xedez, Caritas, CONFER, HOAC, Justicia y Paz, JEC eta JOC elkarteek honako aldarrikapenak planteatzen dituzte:

■ Pertsonak bizitza politikoaren, lan-harreman eta lanaren erdigunean jartzeko, milioika pertsona lan duina lortzeko aukeratik gabe uzten dituen prekarietate baztertzaila behin betiko amaitzeko. Horretarako langileen erakunde, enpresa, gizarte eragile eta gobernuen arteko elkarrizketak sustatu behar ditugu.

■ Botere publikoek pertsona guztiek lan duina lortzeko eskubidea bermatzea, lana bera duintasunaren adierazpena baita.
■ Zainketen lana sozialki eta juridikoki aitortzea. Horretarako, gizarte politikak, genero politikak eta hezkuntza arlokoak berriro bere planteatu behar ditugu, gizon eta emakumeen artean partekatutako zainketa-prestazioak bideratzeko, eta lan arloan aukera berdintasun erreala lortzeko.

■ Pertsona guztien osasun fisiko eta psikikoa bermatuta egon behar dira, baita babes soziala ere.

Maiatzaren 1aren harira, ITD (Eliza Lan Duinaren Alde) elkarteko kide diren erakundeek hainbat mobilizazio antolatu dituzte estatu osoan, sindikatuekin batera, pertsona guztiontzako lan duina eskatzeko.

Komunikabideak harremanetan jartzeko

(HOAC) Abraham Canales: 609.45.98.03 - (Caritas) Ángel Arriví: 619.04.53.81